

«ASKATASUNAREN LAUBURUA»

— Nire semetto diren
Irandatzen eta Etxahuni,
Aberriaren askatasuna
ezagutuko dutelakoan.

1.- OSO URRUNEKO GARAIETAN

Itsasoa bare zegoen, aroia zen eta uhinek indargabeturik Jaizkibelego harkaitzen aurka jotzen zuten. Zeruak garbi-garbia, urdin-urdina, hodei zuriek urratutako urdintasun argitsu batez tintaturik. Hamaika txoriren txiotxak nahasi egiten ziren soinu ozen, xarman, ... eta halaber, musikala sortaraziz.

Haizgorrek ereinotz ardaxka, bere oinak bustitzen zituzten uretara boteaz, eman zuen itxarotako agindua. Baskoi gerlariek, beren uztai, gezi eta azkonak hondar gainean lajatuz, txalupak bultza zituzten ur hotzetan barneratuz. Metro batzuk egin ondoren, askatu egin zituzten, Haizgor eta beren leinuko beste sei aztiak begira ari ziren ertzeraino itzuliz. Une zehatz hartan hiru txalupetan zihoazten gizonak, arraunak atara zituzten eta bogatzeari ekin zioten, erritmikoki, lasai ederrean hasieran, azkarrogo gero, apar zurizko uhinttoak altxatuz eta beuden atzetik erroi zabalak sortuz.



Inguruneetako harkaitzetan begiratzen

Haizgorrek ereinotz ardaxka, bere oinak bustitzen zituzten uretara boteaz, itsasoratzeko agindua eman zuen.



... eta hemeretzi urte horietan, behin bakarrik irten izan zen jaizkibeleko gerizpe magikotik.

ari ziren gizon-emakume ugarien eztarrietatik, txorien kantu ozena mututu zuten irrintzi bortitzak atera ziren. Jaizkibel mendiko baskoi leinuko azken agurra zen. Agur eta ohore itsasoaren beste aldeko lurretarantz abiatu berriak ziren senideentzako, eta batez ere, beuden buru zihoan Belatz buruzagi gaztearentzat. Bera bait zen euskal jainkoek aukeratutakoa Jazikibel gerizpeko baskoien hazia lurralde ezezagun eta urrun haietara eramateko.

Pittinka pittinka, eta arraun kolpe zehatzen bitartez, hiru txalupak Ama Itsasoaren mugagabetasunean zehar gero eta gehiago barneratzen ari ziren, eta Jaizkibel mendiko harkaitzak, gailurra, oihanak,.... begi bistatik galtzen ari ziren, urrutiko hodeien artean ezabatuko bailiran. Bitartean, kaio eta pottorroen kantek urruntasunaren gogoetak ahantzi arazten zituzten.

Belatzek, txalupaburuaren brankan eserita, ez zuen deus esaten, ia ez zen mugitzen, eta bere masailetatik irixtratuz malko garden batzuk ikusi ahal izan ziren. Hemeretzi urte zituen bakarrik, eta hemeretzi urte horietan behin bakarrik irten izan zen Jaizkibeleko gerizpetik, hamalau urterekin, bere gizontasuna probatzeko urruti ez zegoen Larrun mendira joan behar izan zuenean. Bertan akatu zuen bere zuloetan bizi zen hartz haundi-iluna, eta orduz geroztik. Belatz onarturik izan zen gerlaritzat Jaizkibeleko baskoien artean.

Argi eta garbi ikusten zuen bere gogoetan, bere leinuko azti nagusia zen Haizgorrek, urrutiko lurretara joateko aukeratua zela esan zion une zehatza. Mementu hartatik, bi urte igaro izan ziren, antolatze lanetan igarotako bi urte luzeak. Astebete abiatu aurretik, Izardi izeneko neskatila ezti-goxoarekin ezkontarazi zuten Zelaibeltzetako arte sakratuaren aurrean. Belatzek sakonki maite zuen Izardi, baita Izardik Belatz ere. Horretaz, Belatzek ez zuen inolako bildurrik, ezta beraiekin batera, hiru txalupetan zihoazten hogeitahamar neska-mutilen fideltasunaz ere,... bildur bakarra barne erraietatik zaterakion Haizgorren azken hitzak oroitzen zituen bakoitzean:


«Hi Belatz, aukeratua izan haiz Izardirekin batera, gure baskoi hazia urrutira, Ama Itsasoren beste aldeko lurralde urrunetara eramateko. Ez ahaztu gure euskal legea, ez ahaztu gure euskara,... eta gorde zak beti hirekin, lepotik zintzilik, ematen dituen zilarrezko lauburu hau, berak esanen bait dik zein den bidea, eta zein den gure jainkoen nahia. Jarrai aurrera, itsasoa izotza bihurtzen den lurraldeetaraino, eta hantxe finka zak betirako gure leinuaren odola. Lauburu honek gordeko dik beti, bere barnean, gure askatasunaren ametsa!»

Belatzek ezin zuen ulertu nola izan zitekeen izotza, horma bihurtzen zen lurra, ezta nola aurki zezakeen ere. Bazpare, eta Haizgor eta beste gainerako aztien gomendioei eutsiz, iparralderantz zuzendu zituen bere txalupak, zeruetako Izar Haundi Diztiratsuak erakusten zion bideari jarraiki.



Igaro ziren egunak eta gauak, beroak eta euriak,... eta hiru txalupek Izar Haundiak agindutako bidetik jarraitzen zuten. Hirugarren ilargiberria zen, eta lur ezezagun batzuetara iritsi ziren. Belatzek legorreatzeko agindua eman zuen eta honela, zegoeneko horren urriturik zituzten jan-edatekoak berriro ahal izan zituzten. Lur aberatsak ziren haiek, landare eta animaliez jositakoak, baina zoritxarrez, bertako biztanleek inolako adiskidetasun izpirik eskeintzen ez zutenez, berehala ekin behar izan zioten berriro, utzitako bideari.

Handik zenbait egunetara, lur berriak ikustatu zituzten, baita bertatik hornidura berriak hartu ere, baina ez zuten lur haietan denbora luze eman, beharrezkoa zena baik, garbi zait zegoen lur emankor haiek ez zirela Haizgorrek agindutako lur hornituak. Aurrera jarraitu zuten, iparralderantz, Izar Haundiak iragarritako bideari eutsiz. Igaro ziren egunak, eta baita gauak ere, ilargi berriak jaio eta hil egin ziren zeru



Belatzek herrixka baten eriaketari ekin zion. Hogei bat txabola, bata bestearen ondoan.

hartan, eguraldia arront aldatu zegoen, giro hotza benetan itsaso lainotsu haietan nagusitzen ari zena, baina lur hornituaren berririk ez zegoen. Jan-edanak urritzen ari zitzazkien, eta kontu haundiz banatu behar izaten ziren azken pixarrak, deus gabe ez gelditzearren. Hotza gero eta haundiagoa zen, elur malutek den-dena estaltzen zuten geruza zuri eder batez, baina lur usainik ez. Horietako gau ilun beltz batean, gehien-gehienak lo zerraldo zeudenean, kraxkateko soinu haundi bat aditu zen atsedenean zeuden belarriak esnataraziz eta soinuaren ondotik, ikara eta izuzko oiho ozenak, karraxi biziak, ikaragarriak,...

— Zer duk hori? —bota zuen Belatz printzeak, ordurarte murgildurik izan zuen lozorrotik aterez—

— Belebeltzen txalupak, aldamenetik igaro zaigun izotzezko mendi horrekin egin duela topo, eta itsaso hondora joan zaigula!—erantzun zion bere ondoan zegoen gerlarienetako batek—

— Azkar, begira ezazue ea baten bat bizirik ikusten duzuen, eta hala balitz atera ezazue lehenbaitlehen ur izoztu horietatik!

Baina alferrik izan zen dana, Belebeltzen txalupan zihoazten guztiak, berarekin batera, itsaso hondora joan bait ziren. Bestalde, esan beharra dago, behin ur izoztu haietara erori ezker, ez zegoela inolako itxaropenik bizirik ateratzeko.



Egunak igaro ziren berriro, eta gauak beren atzetik. Zenbaitu hilda zeuden ordu-rako, goseak eramanda edo hotzak akabatuta bestela. Goiz batean dana galduta zirudienean, ekaitz haundia piztu zen eta olatuek eraman zituzten bi txalupak, jostailuak bailiran, itsasertze ezezagun baten harkaitzen aurka. Ekaitza amaitu zuenerako, Belatz eta bere gizonak, txalupetatik jeitsi eta lur berrietan barneratu ziren. Harriturik ikusi ahal izan zuten zein aberatsak ziren hango lurrak, landaretza ugaria, animaliez josita, ... behar zuten ainekoa. Haiek ote ziren Haizgorrek Jaizkibeleko ertzetik iragarritako urruneko lurrak?

Legorreatu ziren eta behin gosea asetu, egarria itzali eta nekeak ahaztu ondoren, Belatzek, txalupan zeraman Ekixto izeneko aztiari euskal jainkoei, ea horiek ote ziren bilatutako lurrak galdetzeko agindu zion. Ekixtok dana antolatu zuen, hango hondar beltzaren gainean aldare moduko harripila ipiniz. Bertan ahari bat ipini eta akatu ondoren, bere barrenak irakurtzeari ekin zion. Ez zegoen inolako zalantzarik, hura zen Jaizkibeleko ertzean agindu zitzaien lurralde berria. Hauxe jakinda, Belatzek herrixka



... baina alferrik, etsaiak asko bait ziren, zeruko izarrak baino ugariagoak.

baten eraiketari ekin zion. Denbora ez luze baten ondoren herrixka eginda zegoen. Hoge bat txabola, bata bestearen ondoan, Belatz eta Izardirena eta euskal jainkoei eskeinitakoa denon erdian zeudelarik. Herria babesteko ingurualde guztian zurezko hesi garaiak altxatu zituzten, eta zenbait lekutan harritzko murrak, guztien bizimodua xiurtatzeko moduan. Dena den arrisku haundirik ez zegoen, bertako biztanleak, inuit izeneko gizon ttiki eta hori kolorezkoak arras paketsuak bait ziren, eta laster egin ziren lagun haundiak, elkarri konfidantza eta laguntza eman ez.



Txabolak sutan zeuden, hildakoen gorpuak lurlean etzanda nonahi eta borroka oztopatuz.

2.- ZORIGAIZTOKO EGUN HARTAN

X. mendean gaude, gaur «Labrador» izenez ezagutzen dugun kostaldean kokaturik zegoen baskoi herrixkan. Nonhai sua, nonahi heriotz karraxiak, ... gau goibel hartan. Urte luze ziren urrutitik etorritako gizonen erasoldiei aurre egiten, baina azkenez beren buruak adarrez hornatzen eta wikingo izenez ezagutarazten ziren gerlari basati eta anker haiek herrixkan sartzea lortu izan zuten. Euskaldunek adoreki defendatzen zuten beren bizia, inuit bizilagunek lagundurik, baina alperrik, etsaiak asko bait ziren, zeruko izarrak baino ugariagoak. Txabolak sutan zeuden, hildakoen gorpuak lurlean etzanda nonahi eta borroka oztopatuz. Emakumeen hasperenak eta haurren negar zotinak gerlarien eztarrietatik ateratako uju eta armek elkarrekin topatzerakoan jaurtitutako kraxkadekin nahasten ziren burrunba ozena sortaraziz. Danaren gainetik, herriaren ia lehenengo txaboletaraino iristen zen itsasoaren orrua, dana ezabatuz, trajeriaren trixtura estaliz.

Leinuaren buruzagi gaztea zen Aimarrek, jo ta ke ekiten zion borrokari, bere azkeneko gizonen lagundurik. Ez zegoen zer egiterik, han ez bait zen irabazterik. Banan banan wikingoen erasopean ari ziren erortzen, eta irtenbide bakarra zeukaten: itsasoa. Azken gerlari baskoiek wikingoei itsasorako bidea mozten zieten bitartean, Aimar eta beste hoge bat lagun, —emakume, haur eta gizon— hondar artean lokaturik zeuden txalupak bultzaka ari ziren uretara atera nahiean. Denbora labur batez uretan jartzea lortu zuten, beraien bitartez gatazkaren lekutik urundu zirelarik. Ordu batzuren ondoren, Aimarren txalupak arriskutik kanpo zeuden. Behintzat, iheslariei honela iruditu zitzaizen. Orduan Aimar honela mintzo zen:

«Anai-arrebok, hemen gaude berriro itsasoan, orain denbora luze, orain arte gureak izan diren lur hauetaraino gure arbasoak ekarri zituen Ama Itsaso berean. Atzera joaterik ez dago. Ezin dugu itzuli eta gure arbaso zaharren lurretarantz abiatzea da egin dezakegun bakarra.

Lepotik zintzilik daramadan lauburua, gure aitona zaharra izan zen Belatz haundiaren lepoan etorri zen berbera da. Han, Euskal Herriko lurretan askatasuna berarekin batera joango zela agindu zioten, eta honela izan da gaur arte. Hemendik aurrera honela izan dadin! Itzul gaitzen gure arbasoen lurretara askatasuna gurekin eramanez. Ongi iruditzen???»

Inork ez zuen erantzun eta ixiltasun haundi batek estali zituen Aimarren hitzak, nolabaiteko ezinbesteko baietza emanaz. Arraunari ekin zioten tinko, txalupak hegoalderantz eramanez, beti hegoalderantz... Baina egunak joan, egunak etorri eta ez zuten lurrik ikustaten. Gizonak hiltzen ari ziren pixkanaka pixkanaka, egun batean bi, hurrengoan hiru,... Ez zegoen urik edateko, deusik ahora eramateko, gizonik ez arraunketarako,... Bizirik edo erdi bizirik hobeto esanda, gelditzen zirenak etzanda zeuden, pilatuta bata bestearen gainean, begiak irekita, irekita oso, kolore zurbilak jota, kiratsa zeriela... Aimar besteak bezala zegoen, lur jota, baina ezintasunetik azken indarrak aterez, eta beren azkena zela ikusirik, lepoan zeraman lauburua kendu eta buztinezko ontzi batetan sartuz, itsasora jaurti zuen.

«To Ama Itsaso, bidal ezazu lauburua gure arbasoen lurretara. Bertan askatasuna zabal dezan!!!»

Hau esaten ari zela eman zuen bere azken hatsa.

3.- HONDAR ARTEKO MEZUA

2.057.eko uztailaren 24eko arratsaldean gaude. Egun berotsua benetan, sargoriotua. Europako Komunitatea osatzen duten hemezortzi estatuenetako batean, Euskal Herrian zehazkiago, Belatz eta Aimarren arbasoen amalur berebean. Hondartza guztiak jendez josita daude, Lapurdiko hondartzetatik Bizkaikoenetaraino egoera bera, bero haundia eta jendez gainezkatutako hondartzak. Hondarribikoa ez da salbuespenik, eta leporaino beteta dago. Hamaika haur eta heldu toailen gainean etzanda, eguzkiaren izpien pailaka hartuz, edota uretan sartuta gorputzaren hozberoa freskatuz...

— Beizak Asier, beizak zer dagoen hor, hondar artean!

— Hara, zer dun hori Amaia?

— Ez baitzekit, metalezko puska zirudik!

— Hartzan ba neska, ez din autxikirik egingo!

— Hartzak hik ba, baliente halakua!


— Hementxe dun ba neska, ikustan esku gainean dinat eta lasai, ez bait din deus egingo!

— Beizak Asier, metale puska ilun horrek lauburu baten tankera dik!

— Deitukiyon attonari Amaia, bera gaztetan arkeologaria izan bait dun eta zeredozer jakingo din honetaz! Hara ba neska, mugi zan ipurdia eta deitukiyon!

— Attona, attona!!! Beitu zer aurkitu duen Asierrek itsasertzean, hondar artean!

— Zer diozu Amaia? Zer aurkitu duzue? maskor bitxiren bat ala?



Baina zertarako egingo zituzten honelako lauburuak eta zein izango da beraien bitartez eman nahi ziguten ezkutuko mezua???

- Ez attona, ez duzu halakorik, lauburu bezalako metale puska zahar bat baizik!
- Zer esaten duzu neska, ea ekar idazue, ikus dezagun zer den hori!
- Ordurako, beraien ondoan zegoen Asierrek metale puska jarri zion aitonari eskuan, guztiz bitxia da e attona???, esanaz
- Aitona Martzielek hartu zuen harriduraz begiratu, eta gainean itsatsirik zituen zakarrak astinduz gogoetara ekin zion ahots ozenaz:

«... bai bitxia, independentziaren aurreko garaietan gure aiton-amonek lepotik zintzilikatzen zituzten zilarrezko lauburuen antzekoa dirudi. Baina bai egituraz eta bai zamaz, zaharragoa dirudi, askoz zaharragoa gainera. Bitxia da, bai, benetan bitxia. Bihar bertan eramango dut Iruñeko Arkeologi Erakustetxe Nazionalera azter dezaten. Horixe izango da onena, du-darik ez egin. Baina zertarako egingo zituzten honelako lauburuak eta zein izango da beraien bitartez eman nahi ziguten ezkutuko mezua???

Jakitera, auskalo!!!»

JOSEBA AURKENERENA BARANDIARAN